


# Getxo Antzokia

ABRARA ZABALDUTAKO LEIHOA, EMOZIOEN AGERTOKIA... GURE INGURUKO ARGI KULTURALA



## KANPOKO KOMUN PUBLIKOAK BERRESKURATU DIRA

# ERAIKITZEN ARI DIREN GETXO ANTZOKIAREN AZPIKO APARKALEKUA FUNTZIONAMENDUAN HASI DA

**A**ste honetan hasi da Algortako San Nikolas plazaren azpian eraiki den egoiliarrentzako lurpeko aparkalekua funtzionamenduan. 5.736 m<sup>2</sup>-ko azalera du, hiru solairutan banatuta; beheko solairuetan egoiliarrentzako 105 aparkaleku daude, horietako lau pertsona ezinduei bideratutakoak izaki. Lehenengo solairuak aprobetxamendu teknika edukiko du eta eraikitzen ari diren Getxo Antzokiari asistentzia emango dio, horniketaz arduratuko diren kamioientzako aparkatzeko eremu bat edukiko baitu, zamalanak sototik egitea

ahalbidetuz eta, horrela, garraio-ibilgailuek bide publiko okupatzea eta okupazio horrek plazaren erabilera askean izango lukeen eragina ekidinez.

### Kanpoko komun publikoak

Aparkalekuak ibilgailuen pasabiderako arrapala bat du Andres Cortina kalean, oinezkoentzako bi sarbide-gunerekin Basagoiti etorbidean eta aparkalekura sarbidea bermatzen duen igogailu batekin San Nikolas elizaren ondoan. Halaber, herritarrentzako erabilgarri egongo

diren kanpoko komun publikoak berreskuratu dira, sarrera Basagoiti etorbidetik dutela. Instalazio horiek hiru komunez osaturik daude, bat emakumezkoentzako, bestea, gizonzkoentzako eta hirugarrena mugikortasuna murriztuta duten pertsonentzako.

### Aparkalekuen emakida

Oraindik eskuragarri dauden aparkalekuren bat eskuratzeko interesa duten Getxoko auzotarrek, langileek eta dendek beren eskabideak Algortan, Areta-Romona eta

Andra Marin edota Udaletxean bertan dauden lau herritarren arreta bulegoetako (HAB) edozeinetan aurkeztu ahal izango dituzte. Baldintzen pleguak eskuragarri daude bulego horietan eta, baita, Ondare-Arlokoetan ere; gainera, [www.getxo.net](http://www.getxo.net) web-orrialdean ere kontsulta daitezke.

Emakidak 50 edo 25 urterako emango dira eta ezingo dira luzatu; aparkaleku bakoitzarengatik ordaindu beharreko kanona, esleipen-aldiaren arabera, 23.081 eurokoa edo 17.021 eurokoa izango da, hurrenez hurren.

## SAN NIKOLAS PLAZAKO UDAL-FRONTOIAK BERE JARDUERA BERRESKURATU DU



**M**aiatzaren amaieran, Algortako San Nikolas plazako udal-frontoia bere erabilera publiko berreskuratu du, eraikitzen ari diren Getxo Antzokiaren eraikuntza dela eta aldi batean itxita egon ondoren. Lanen bilakaera eta Udalak auzotarren eskaerei erantzuteko eginiko etengabeko ahaleginak frontoia berri ere irekitzea ahalbidetu dute. Frontoia, aldi batean obrek okupatuta egon denak, bere jatorrizko itxura berreskuratu du margotze-lanak eta zoruko harriaren garbiketa-lanak egin ondoren.

Berri irekitzeko aurreikusitako data aurreratu egin da Getxoko Pilota Eskolak San Nikolaseko Pala Txapelketa ekainean antolatuta ahal izateko egindako eskaeraren harian. Eskaera hori dela eta, espazio hori obretatik aske uzteko

aukera aztertzen da, eraikuntzaren beste lanekin eta faseekin batera gartzten ari den urbanizazio-planarekin bat.

Algortako udal-frontoia berri irekitzea zona horretan lanak aurrera doazen heinean gauzatzen ari den espazio publikoaren pixkanakako askatzeari gehitzen zaio. Horrek eremua obretatik isolatzen duen hesia, segurtasun-arrazoientzat jarria, kentzen joatea ahalbidetzen du. Hasiera Andres Cortina oinezkoentzat jarritako kalea berri ireki zenean eman zitzaion eta, duela gutxi, San Nikolas plaza neurri handi batean jendearen igarotzeari ireki izanari gehitu zaio, zeinak, obraren eragin-eremua bere osotasunean urbanizatzen denean espazio argi, oinezkoentzako eta funtzio anitzeko bihurtuko dela sentiaraztera garamatzen.

### ORAINGO LANAK

#### • URBANIZAZIOA.

Partzialki gauzatuta dago. Gainerakoan, proiektua idatzita dago eta horren lizitazioa jada prestatzen ari gara. Denboraldi baterako eta behin-behinean, San Nikolas plaza neurri handi batean jendearen igarotzeari ireki zaio, behin betiko urbanizazio-jarduerak gauzatu zain.

#### • 4A FASEA, teilatua, banaketak eta instalazioak.

%25ean gauzatua, urte bukaerarako amaiteza aurreikusten da.

#### • 4B FASEA, fatxaden eta instalazioen eraikuntza.

Lizitazioan

### Zehatz-mehatz

Eraikitzen ari diren kultur guneetako fatxadetan beiren eta zura laminatuen konbinazioa izango da material protagonista. Itxiturak, oro har, bi geruzez osaturik egon ohi dira, kanpoko eta barneko, bien artean aireztapena sortuz, zeinak, aldi berean, aire zabaletik babestea eta baldintza termikoak eta akustikoak bermatzea ahalbidetzen duen zona bakoitzaren barne-erabilerean arabera.

### Bazenekien...

...Eraikinaren eraikitako azalera osoaren erdia lur-beherean dagoela?, Eta maila horietara beirako patioen bitartez eta, baita, sabaileiho bitartez argi naturala sartzea proiektuaren lehentasunetako bat dela, bizigarritasun-baldintzak lur gainean dagoenaren antzekoak izatea helburu duelako?



- Informaziorako telefonoa: 94 466 01 05
- Posta elektronikoa: [iradokizun@getxo.net](mailto:iradokizun@getxo.net)